

Xedapen Orokorrak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

779

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 8koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailko Zerbitzu zuzendariarena, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko ekainaren 11ko aginduaren bitartez onartutako sagarrondoan ekoizpen integratuaren arau tekniko berezia argitaratzeko agintzen duena.

2010eko urriaren 1ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (190. zk.) Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko ekainaren 1eko Agindua, sagarrondoan ekoizpen integratuaren arau tekniko berezia onartzen duena.

2010eko urriaren 14an argitaratu ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (198. zk.) arauaren honako eranskin hauek: izurriteen eta gaixotasunen kontrol integratua (I. eranskina), landareen osasunerako aholkatzen diren formulatuak (II. eranskina), eskualdean erabiltzen diren sagarrondo-aldaera batzuen izendapenak (III. eranskina), eta lerroen eta zuhaitzen artean gorde beharreko distantzia gomendatuak, eredu indarrari eta erabilitako eraketa-sistema bakoitzari erantzunez (IV. eranskina).

Akats baten ondorioz, 2010eko ekainaren 11ko aipatutako aginduan, ez zen argitaratu onartzen zuen sagarrondoan ekoizpen integratuaren arau tekniko bereziaren testua.

Hori dela eta,

EBATZI DUT:

Sagarrondoan ekoizpen integratuaren arau tekniko berezia, ebazpen honen eranskin gisa doana, argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 8a.

Zerbitzu zuzendaria,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

779

RESOLUCIÓN de 8 de noviembre de 2010, del Director de Servicios del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se ordena la publicación de la Norma Técnica Específica de la Producción Integrada del Manzano aprobada mediante Orden de 11 de junio de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

Con fecha 1 de octubre de 2010 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco (n.º 190) la Orden de 11 de junio de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la norma técnica específica de la producción integrada del manzano.

Con fecha 14 de octubre de 2010 se publicaron en el Boletín Oficial del País Vasco (n.º 198) los anexos de la norma relativos al Control Integrado de Plagas y Enfermedades (anexo I), Formulados fitosanitarios de carácter aconsejable (anexo II), Denominaciones de algunas variedades de manzano que se utilizan en la zona (anexo III) y a distancias recomendadas a guardar entre líneas y entre árboles atendiendo al vigor de los patrones y diferentes sistemas de formación utilizados (anexo IV).

Por un error, con la precitada Orden de 11 de junio de 2010, no se publicó el texto de la norma técnica específica de la producción integrada del manzano que había sido aprobada.

Por ello,

RESUELVO:

Ordenar la publicación de la Norma Técnica Específica de la Producción Integrada del Manzano que se acompaña como anexo de la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de noviembre de 2010.

El Director de Servicios,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.

ERANSKINA
SAGARRONDOEN EKOIZPEN INTEGRATUAREN
ARAU TEKNIKO BEREZIA.

Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria.

Arau tekniko berezi honek Landare-jatorriko produktuen ekoizpen integraturako Arau Tekniko Orokorra osatzen du, sagargintzari lotutako alderdi guztietan.

Arau tekniko berezi hau propio horretarako sortutako lan-talde batek egin du, Sagarrondoaren Batzorde Teknikoko ordezkariak osatutako lan-taldeak.

Hasierakoa.

Arau tekniko berezi honek Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa den ekoizpen integraturako arau tekniko orokorra osatzen du.

Arau honek sagargintzan ekoizpen- eta manipulazio-prozesuetan bete beharreko baldintza bereziak ezartzen ditu.

Arau orokorrean bezala, prozesuaren fase bakoitzeko derrigor bete beharreko baldintzak ezartzen dira, bai eta gomendioak ere. Fase bakoitzean, arau orokorrean agindutakoa beteko da, eta, horrez gain, agiri honetan zehaztutakoa.

I. kapitulutik XIII.era azaldutako baldintzak ekoizleari buruzkoak dira, XIV. kapituluan manipulatuzaileari edo barazki- eta fruta-zentroei buruzko baldintza berariazkoak azaltzen dira, eta gainerako kapituluak bi langile motei aplikatzekoak dira.

Ekoizpen integratua arautzeko esparrua.

31/2001 Dekretua, otsailaren 13koa, ekoizpen integratuari eta hura nekazaritzako elikagaietan adierazteari buruzkoa. Horixe da Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizpen integratua arautzen duen oinarriko lege-esparrua.

Arau-oinarria.

Honako hauek izan dira erreferentziako agiriak:

– Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa den landare-jatorriko produktuen ekoizpen integraturako arau tekniko orokorra.

– UNE 155.000 Araua, PNE155000 erreferentzia (2005eko maiatza): frutak eta barazki freskoak. Ekoizpen kontrolatua. Baldintza orokorrak.

– Nekazaritzako Jardunbide Egokien Protokoloa, Eurepgapena, fruta eta barazki freskoei buruzkoa.

– 1201/2002 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, nekazaritza-produktuen ekoizpen integratua arautzen duena.

Terminoen definizioak:

ANEXO
NORMA TÉCNICA ESPECÍFICA DE PRODUCCIÓN
INTEGRADA DEL MANZANO

Aplicable en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Esta Norma Técnica Específica continúa y completa la Norma Técnica General de Producción Integrada para Productos de Origen Vegetal en todo lo relacionado con el cultivo del manzano.

Esta Norma Técnica Específica ha sido elaborada por un grupo de trabajo constituido, a tal efecto, con representantes del Comité Técnico del Manzano.

Introducción.

Esta Norma Técnica Específica completa la norma general de Producción Integrada aplicable en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en todo lo referido al cultivo del Manzano.

Esta norma establece los requisitos específicos del cultivo que debe cumplir el proceso productivo y de manipulación.

Al igual que en la norma general, para cada fase del proceso se establecen los requisitos de obligado cumplimiento y las recomendaciones. Para cada una de las fases se cumplirá lo establecido en la norma general y además lo especificado en este documento.

Los requisitos descritos desde el Capítulo I al XIII se refieren o son aplicables al operador-productor, en el Capítulo XIV se describen los específicos del operador-manipulador o centrales hortofrutícolas y los restantes capítulos son aplicables a ambos tipos de operadores.

Marco regulador de la producción integrada.

Decreto 31/2001, de 13 de febrero, sobre Producción Integrada y su indicación en Productos Agroalimentarios, el cual constituye el marco legal básico que regula la Producción Integrada en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Base normativa.

Se han tomado como documentos de referencia:

– Norma Técnica General de Producción Integrada para productos de origen vegetal aplicable en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Norma UNE 155.000, referencia PNE155000 (mayo 2005): Frutas y Hortalizas frescas. Producción controlada. Requisitos generales.

– Protocolo de Buenas Prácticas Agrícolas de Eurepgap de frutas y hortalizas frescas.

– Real Decreto 1201/2002, de 20 de noviembre, por el que se regula la producción integrada de productos agrícolas.

Definiciones de términos:

Landare-jatorriko produktuen ekoizpen integraturako arau tekniko orokorrean definitzen dira ekoizpen integratuari buruzko araudian erabiltzen diren termino orokorrak.

Dokumentu honetan ez da erabiltzen atal honetan definitu beharreko sagarrondoei buruzko berariazko terminorik.

I. KAPITULUA ALDEZ AURRETIKO BALDINTZAK

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

1. artikulua.— Erregistroko baldintza-multzoa.

1.2.— Laborantza-unitateen definizioa: araudi hau betetzeko, laborantza-unitatea landutako azalera-unitatea da, lur-sail bakarrak edo hainbatek osatutakoa, non labore bera ereiten den, laborantza-praktika bertsuak erabiliz, ia aldi berean eta titular bakarrak kudeatuta. Tratamendu kimikoen kasuan, materia aktibo berberak erabiliko dira, une berean aplikatuta eta dosi berbera emanda.

Unitatea tratamendu lokalizatuka edo aldaeraka banatzeko beharra dagoen erabakitzea teknikari arduradunaren esku utziko da. Zatitutako laborantza-unitateetan, produktuaren trazabilitatea mantenduko da zati bakoitzean. Kutsadura kimiko gurutzatua sortzeko arriskua baldin badago, tratamendua etenda izateko epea errespetatu beharko da sail guztian.

II. KAPITULUA INSTALAZIOAK, TRESNAK ETA LANGILEAK

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

4. artikulua.— Ureztatze-sistemak.

4.2.— Ureztatze-teknika: ureztatzea beharrezkoa izango balitz, aspertsioz, mikroaspertsioz edota tantaketaz egin ahal izango da.

III. KAPITULUA LURZORUA, LUR-SAILAK PRESTATZEA ETA LURRA LANTZEA

Arau orokorrean adierazitako guztiaz gain, ondorengo hau beteko da:

16. artikulua.— Lurrak eta substratuak desinfektatzea.

16.1.— Lurrak:

Salbuespenetako bat izango da lur-sailak *Armillaria* spp. espeziearen erasoak jasan izana; kasu horretan lu-

En la Norma Técnica General de la Producción Integrada para Productos de Origen Vegetal se definen los términos generales empleados en la normativa de Producción Integrada.

En este documento no se utilizan otros términos específicos del cultivo que necesiten definirse en este apartado.

CAPÍTULO I REQUISITOS PREVIOS

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

Artículo 1.— Condicionantes del registro.

1.2.— Definición de unidades de cultivo: a los efectos del cumplimiento de esta normativa se entenderá por unidad de cultivo la unidad de superficie cultivada, formada por una o varias porciones de terreno que podrían no ser contiguas en las que se realiza el mismo cultivo, siguiendo prácticas de cultivo similares de forma mas o menos simultanea y gestionada por un único titular. En el caso de los tratamientos químicos, se utilizarán las mismas materias activas, aplicadas en el mismo momento y en idéntica dosis.

La necesidad de subdividir una unidad por tratamientos localizados o distintas variedades, se dejará a criterio del/a técnico responsable. En las unidades de cultivo subdivididas se mantendrá la trazabilidad del producto para cada subdivisión. En caso de existir riesgo de contaminación química cruzada, se deberá respetar el plazo de supresión del tratamiento en la totalidad de la plantación.

CAPÍTULO II INSTALACIONES, EQUIPOS Y PERSONAL

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

Artículo 4.— Sistema de riego.

4.2.— Técnica de riego: en caso de ser necesario riego, éste será indistintamente por aspersión, microaspersión y/o goteo.

CAPÍTULO III SUELO, PREPARACIÓN DEL TERRENO Y LABOREO

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general y además:

Artículo 16.— Desinfección de suelos y sustratos.

16.1.— Suelos:

Una de las excepciones será que la parcela arrastre un historial de ataque por *Armillaria* spp., en cuyo

rrak kimikoki desinfektatuko dira fokuak kontrolatu eta gutxitzeko, berriz ere landaketekin hasi aurretik.

IV. KAPITULUA
LANDARE-EKAIA

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

20. artikulua.– Aldaerak eta txertakak aukeratzea.

20.4.– III. eranskinen biltzen dira eskualdearen erabiltzen diren sagarrondo-aldaera batzuen izendapenak.

V. KAPITULUA
EREITEA - LANDATZEA

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

21. artikulua.– Ereitea - landatzea.

21.4. Landaketa-eremua: lerroen eta zuhaitzen artean gorde beharreko distantzia gomendatuak, eredu- en indarrari eta erabilitako eraketa-sistema bakoitzari erantzunez, IV. eranskinen taulan biltzen dira.

VI. KAPITULUA
POLINIZAZIOA

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe zehaz- tutakoa beteko da.

VII. KAPITULUA
ONGARRITZEA, FERTIRRIGAZIOA ETA
MEDEATZEA

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

23.1.– Analisi fisiko-kimikoa: lurzoruetan, gutxi- enez, labore-unitateko analisi fisiko-kimiko bat egin beharko da lau urtean behin.

25. artikulua.– Nitrogenozko ongarritzea.

25.3.– Komeni da ongarritze nitrogenatua zatitzea.

VIII. KAPITULUA
UREZTATZEA

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldu- tako guztia beteko da.

caso se podrá efectuar la desinfección química del suelo para controlar y disminuir el número de focos previa replantación.

CAPÍTULO IV
MATERIAL VEGETAL

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

Artículo 20.– Elección de variedades y portainjer- tos.

20.4.– En el anexo III de carácter informativo se recogen las denominaciones de algunas variedades de manzano que se utilizan en la zona.

CAPÍTULO V
SIEMBRA - PLANTACIÓN.

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

Artículo 21.– Siembra - Plantación.

21.4.– Marco de plantación: las diferentes distan- cias recomendadas a guardar entre líneas y entre ár- boles atendiendo al vigor de los patrones y diferentes sistemas de formación utilizados quedan recogidas la tabla del anexo IV.

CAPÍTULO VI
POLINIZACIÓN

Se cumplirá lo especificado en la norma general cuando sea aplicable.

CAPÍTULO VII
FERTILIZACIÓN, FERTIRRIGACIÓN Y ENMIENDAS

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

23.1.– Análisis físico-químico: el número de análi- sis físico-químicos del suelo a efectuar será, como mí- nimo, de 1 análisis por unidad de cultivo cada cuatro años.

Artículo 25.– Fertilización nitrogenada.

25.3.– Es recomendable el fraccionamiento de la fertilización nitrogenada.

CAPÍTULO VIII
RIEGO

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.

IX. KAPITULUA
PRAKTIKA KULTURALAK

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

31. artikulua.— eraketarako, inausketarako eta zurkaintzak jartzeko sistema.

31.4.— a) Zuhaitzaren indarra kontrolatzeko hazkunde-erregulatzaileak erabili ahal izateko, beharra teknikari arduradunak arrazoitu behar du.

b) Zuhaitzaren indarra kontrolatzeko, hazkunde-erregulatzaileak beharrean, hazkuntza-teknikak erabiltzea gomendatzen da.

31.5.— Bakantzea: bakantzeetan fitoerregulatzaileak erabil daitezke.

X. KAPITULUA
FITOSANITARIOEN ERABILERA SAGARGINTZAN

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

36. artikulua.— Kontrol kimikoko zuzeneko neurriak.

36.3.— Formula gomendatuak: erregistro ofizialean labore horretarako eta aurreikusitako erabilerrako baimendutako formulazio edota materia aktibo guztiak erabili ahal izango dira, mugak errespetatuta, teknikari arduradunaren gomendioekin, eta ekoizpen integratuaren baldintzak betetzea. I. eranskinean biltzen dira laboreari eragiten dioten izurriak eta gaixotasunak, bai eta horien tratamendurako atalaseak eta zeharkako kontrol metodoen inguruko oharrek ere.

XI. KAPITULUA
SAGARRAK BILTZEA ETA GORDETZEA

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

38. artikulua.— Sagarrak biltzea.

38.4.— Sagardoa egiteko sagargintzan, sagarrak biltzeko garaian, «garbiketa» egin beharko da, alegia, lurreko sagarrak jaso, gainerakoak biltzen hasi aurretik. Lehenengo «garbiketako» sagarra ez da erabiltzen.

40. artikulua.— Sagarrak bildu eta gordetzea.

40.4.— Sagardoa egiteko sagarrei dagokienez, transformaziora ahalik eta azkarren bideratzea gomendatzen da, gehienez ere, bilketaren ondorengo 5 egunetan. Bitartean, sagarra aireztapena ahalbidetzen duten ontzietan edukitzea komeni da.

CAPÍTULO IX
PRÁCTICAS CULTURALES

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

Artículo 31.— Sistema de formación, poda, entutorado.

31.4.— a) El uso de reguladores de crecimiento para controlar el vigor del árbol tiene que estar justificado por el técnico responsable.

b) Se recomienda el uso de diferentes técnicas de cultivo frente a los reguladores de crecimiento para controlar el vigor del árbol.

31.5.— Aclareo: se permite el uso de fitoreguladores en las labores de aclareo.

CAPÍTULO X
MANEJO FITOSANITARIO DEL CULTIVO

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

Artículo 36.— Medidas directas de control químico.

36.3.— Formulaciones aconsejadas: se podrá emplear todas las formulaciones y/o materias activas autorizadas en los registros oficiales para el cultivo y uso previsto, respetando las restricciones impuestas, con la recomendación del técnico responsable, y se cumplan los requisitos propios de la producción integrada. En el anexo I, quedan recogidas diferentes plagas y enfermedades que afectan al cultivo, con sus respectivos umbrales para el tratamiento y diferentes observaciones de métodos de control indirectos.

CAPÍTULO XI
RECOLECCIÓN Y CONSERVACIÓN

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

Artículo 38.— Recolección.

38.4.— En el cultivo de manzano destinado a elaboración de sidra, en la época recolección se deberá realizar una «limpieza» o retirada de la manzana que se encuentra en el suelo antes de dar comienzo a las labores de recolección. La manzana que proviene de esta primera «limpieza» se considera inviable.

Artículo 40.— Recogida y conservación.

40.4.— En el caso de la manzana destinada a la elaboración de sidra, se recomienda realizar la entrega para su transformación en el menor tiempo posible y no transcurran más de 5 días desde la recogida. Entre tanto es recomendable mantener la manzana en envases que permitan su aireación.

XII. KAPITULUA
HONDAKINAK KUDEATZEA

Arau orokorrean adierazitako guztiaz gain, ondorengo hau beteko da:

42. artikulua.– Landare-hondakinak oro har.

42.2.– Hondakinak erretzea:

Salbuespen gisa, hondakinak erre ahal izango dira infekzio-fokuak desagerraraztea dutenean helburu, betiere I. eranskinean bildutako kasuetan eta teknikari arduradunaren aginduta.

XIII. KAPITULUA
USTIAPEN-KOADERNOA

Arau orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo hau beteko da:

45. artikulua.– ustiapen-koaderno.

45.7.– Oharrak:

Laborantza-Unitateak: laborantza-unitatea, katastroko lur-sailen identifikazio-kodea, laborantza-unitatearen guztizko azalera, aldaera eta patroia, prestatzeko sistema, landaketa-eremua, landare-kopurua/Ha, landatze-urtea.

Lurzoruaren Mantenua: laborantza-unitatea, erabili beharreko estrategia identifikatu (belarreztatatu, sastrakak kendu, etab.), lekua eta eguna.

Egoera Fenologikoak: laborantza-unitatea, aldaera, data, egoera fenologikoa, aurreikusitako jasotze-data.

Kimaketa: laborantza-unitatea, hasiera- eta amaiera-data eta kimaketa-mota.

Fauna Onuragarria: laborantza-unitatea, fauna onuragarria eta izurritea.

Izurrien eta fauna onuragarriaren kontrola eta kalkulua: laborantza-unitatea, data eta egindako kalkuluak.

Praktika Kulturalak: laborantza-unitatea, data, egindako lanak.

Ongarritzea: laborantza-unitatea, data, ongarri-mota (osagaiak), dosia, egoera fenologikoa, aplikatzeko modua, izena eta langilearen sinadura.

Ureztatzeko Sistema: laborantza-unitatea, uraren jatorria, instalazioaren deskribapena (sistema-mota, igorleak, bolumen-kontrola, eta abar).

Gomendio Teknikoa: laborantza-unitatea, data, oharrak, preskripzioa, dosiak, segurtasun-epa, teknikariaren sinadura.

Belar Txarren Kontrol Kimikoa: laborantza-unitatea, data, produktu komertziala, substantzia aktiboa, dosia, preskripzio teknikoa, izena eta langilearen sinadura.

Izurriteen eta Gaixotasunen Kontrol Kimikoa: aurrekoa bezalakoa, segurtasun-epa barne, eta, horrez

CAPÍTULO XII
GESTIÓN DE RESIDUOS

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general y además:

Artículo 42.– Residuos vegetales en general.

42.2.– Quema de restos:

Excepcionalmente, se permitirá la quema de restos con fines de eliminación de focos de infección, en los casos recogidos en el anexo I con la prescripción del técnico responsable.

CAPÍTULO XIII
CUADERNO DE EXPLOTACIÓN

Se cumplirá lo especificado en la norma general y además:

Artículo 45.– Cuaderno de explotación.

45.7.– Anotaciones:

Unidades de Cultivo: unidad de cultivo (en adelante UC), código de identificación de las parcelas catastrales, superficie total de la unidad de cultivo, Variedad y patrón, sistema de formación, marco de plantación, n.º plantas/Ha, año de plantación.

Mantenimiento del Suelo: UC, identificar estrategia a realizar (enherbado, desbrozado etc.), lugar y fecha.

Estados Fenológicos: UC, variedad, fecha, estado fenológico, fecha de recolección prevista.

Poda: UC, fecha de inicio y final y tipo de poda.

Fauna Auxiliar: UC, fauna auxiliar y plaga.

Control y Conteos de Plaga y Fauna Auxiliar: UC, fecha y conteos realizados.

Prácticas Culturales: UC, fecha, labores efectuadas.

Fertilización: UC, fecha, tipo de abono (composición), dosis, estado fenológico, forma de aplicación, nombre y firma del operario.

Sistema de Riego: UC, procedencia del agua, descripción de la instalación (tipo sistema, emisores, control del volumen etc.).

Recomendación Técnica: UC, fecha, observaciones, prescripción, dosis, plazo de seguridad, firma del/la técnico.

Control Químico de Malas Hierbas: UC, fecha, producto comercial, sustancia activa, dosis, prescripción técnica, nombre y firma del operario.

Control Químico de Plagas y Enfermedades: idem. al anterior, incluyendo plazo de seguridad y además

gain, tratamenduaren justifikazioa (esku hartzeko irizpideak, tratamenduaren atalaseak, monitorizazioa, eta abar).

Bilketa: laborantza-unitatea, jasotze-data, jasotze-baldintzak, ekoizpena eta heldutasun-parametroak.

Eragilearen Adierazpena: eguna, izena eta sinadura.

XIV. KAPITULUA
BARAZKI- ETA FRUTA-ZENTRALAK

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldutako guztia beteko da.

XV. KAPITULUA
PRODUKTU FITOSANITARIOEN HONDAKINEN
KONTROLA

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldutako guztia beteko da.

XVI. KAPITULUA
INGURUMEN-BABESA

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldutako guztia beteko da.

XVII. KAPITULUA
IDENTIFIKAZIOA ETA TRAZABILITATEA

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldutako guztia beteko da.

XVIII. KAPITULUA
PRESTAKUNTZA

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldutako guztia beteko da.

XIX. KAPITULUA
BEZEROEN KEXAK

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldutako guztia beteko da.

XX. KAPITULUA
KALITATE-SISTEMA

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldutako guztia beteko da.

XXI. KAPITULUA
AZTERKETA-METODOAK

Arau orokorra aplikatzekoa denean, hantxe azaldutako guztia beteko da.

justificación del tratamiento (criterios de intervención, umbrales del tratamiento, monitorización etc.).

Recolección: UC, fecha de recolección, condiciones de recolección, producción y parámetros de madurez.

Declaración del Operador: fecha, nombre y firma.

CAPÍTULO XIV
CENTRALES HORTOFRUTÍCOLAS

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.

CAPÍTULO XV
CONTROL DE RESIDUOS DE PRODUCTOS
FITOSANITARIOS

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.

CAPÍTULO XVI
PROTECCIÓN MEDIOAMBIENTAL

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.

CAPÍTULO XVII
IDENTIFICACIÓN Y TRAZABILIDAD

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.

CAPÍTULO XVIII
FORMACIÓN

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.

CAPÍTULO XIX
RECLAMACIONES DE LOS CLIENTES

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.

CAPÍTULO XX
SISTEMA DE LA CALIDAD

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.

CAPÍTULO XXI
MÉTODOS DE ANÁLISIS

Se cumplirá todo lo indicado en la norma general cuando sea aplicable.